

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI ETA ELEDUNEN

BATZARRARI

Lehendakariak proposatuta, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau aurkeztu da, Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren 2022ko otsailaren 28ko bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

ZIOEN AZALPENA

Errusiako Gobernuak Ukraina eraso eta inbaditzeko hartu duen erabakiak iragan ostegunetik dozenaka hildako eta ehunka zauritu eragin ditu, eta bonbetatik ihesi lekualdatzen ari den jende asko ere bai.

Errusiako Gobernuak burutu duen eraso inongo justifikaziorik ez duen oldarra da, ikusi gabeko larritasuna duena, eta nazioarteko zuzenbidearen urraketa nabarmena ere bada, segurtasun globala eta egonkortasuna arriskuan jartzen dituena.

Hori guztia dela eta, honako adierazpen instituzional hau onetsi du Nafarroako Parlamentuak:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

- 1.- Nafarroako Parlamentuak Errusiaren eraso militarra salatzen du, eta eskatzen du berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela.
- 2.- Nafarroako Parlamentuak borrokak berehala buka daitezela exijitzen du, biktimen kopurua handitu aurretik, eta tropak itzul daitezela nazioarteak Errusiako Federazio gisa aitortutako lurraldera.
- 3.- Nafarroako Parlamentuak eragile guztiei dei egiten die Errusiak hasitako gatazka belikorako konponbideak bila ditzaten.

4.- Nafarroako Parlamentuak berresten du desadostasunak konpontzeko esparrua Nazio Batuen Gutuna dela, bakearen eta diplomaziaren bideak erabiliz.

5.- Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeak premiatzen ditu arreta eman diezaieten Ukrainatik lekualdatu eta Europako beste herrialdeetan babesa bilatzen ari direnei.

6.- Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun erabatekoa adierazten die Ukrainako Gobernuari eta herriari eta, halaber, Errusian gerraren aurka manifestatzen ari direnei eta jazarpen polizial eta militarra pairatzen ari direnei.

7.- Nafarroako Parlamentuak elkarretaratze baterako dei egiten du, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde nagusiekin batera: 2022ko otsailaren 28an, astelehenarekin, 12:00etan egingen da, Iruñeko Sarasate pasealekuan, Ukrainako egoera salatzeke eta adierazpen honetan onetsitako puntuak babesteko.

Iruñean, 2022ko otsailaren 28an.



UNAI HUALDE IGLESIAS

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria